

Koperniko eta Galileo

- Jone kapitainak eta Txomin haren lotinant leialak bezala, jendeak betidanik jakin nahi izan du unibertsoa nola egina den.

Baina jendeak ez du beti Eguzki sistemaren gaur egungo ikusmoldea ukan. Eta horren ulertzeko, Geek irakasleak denboran gaindi bidaiatzeko suziri bat pikoan ezarri du.

- Iraganera itzul gaitezen! 3, 2, 1, 0!

- Horrela, Antzinako Grezian, Aristotelesek eta zenbait greziar astronomok uste zuten Eguzkia zela Lurraren inguruan itzulika ibiltzen.

Alabaina, Lur planetatik ikusirik, jendeak uste zuen Lurra munduaren zentroan zela, eta dena haren inguruan zebilela.

Eguzkia, beste planetak...

Modelo *geozentrikoa* erraten zaio horri.

Baina orduko ulertua zuten Lurra biribila zela.

Jone kapitaina, II. mendera itzul zaitezke, plazer baduzu?

Egiptoko Ptolomeoren iduriko, Lurra irudimenezko puntu baten inguruan itzulika ibiltzen zen.

Haren gustuko, Lurra ez zen gehiago unibertsoaren zentroa.

Bizkitartean, pentsatzen zuen beti Lurraren inguruan itzulika ibiltzen zirela Eguzkia eta planetak.

XVI. mende arte hala pentsatzen zuten.

Orduan, Nikolas Kopernikok kalkulu burutsuak egin zituen eta Eguzkia zentroan zuen sistema proposatu.

Sistema *heliozentrikoa* erraten zaio horri.

Pentsa denak ez zirela akort unibertsoaren irudikapen berri horrekin!

XVII. mendean Galileok frogatu zuen sistema heliozentrikoa errealitatea zela, lehenbiziko teleskopioaz egin zuzeneko behaketei esker.

Baina Galileoren ideiak zuzenak izanagatik, jendea kontra jarri zitzaion eta auzipetua ere izan zen.

“Alta, itzulika ari da!”, erran zuen ahapeka auziaren bukaeran, debekatua baitzitzaion sistema heliozentrikoaren aipatzea.

Jone kapitaina, plazer baduzu!

150 urte Koperniko hil ondoan baizik ez zuen Isaac Newton ingelesak grabitazioaren teoria aurkitu.

Teoria horrek planeten mugimendua esplikatzen du eta sistema heliozentrikoa baieztatzen.

Azkenean!

Zenbat mende eta ikerketa behar izan diren Eguzkia eguzki-sistemaren zentroan dela frogatzeko!

Aski delarik espaziora joatea horretaz ohartzeko!

Baina garai hartan, nehork ez zuen Geek irakaslearen suziria!

Milesker, Geek irakaslea!